

URTARRILA
2021

Lanberriak

ccoo00.eus

ANIMAZIO
SOZIOKULTURALA
ANIZTASUN
FUNTZIONALA
ESKU HARTZE
SOZIALA
AISI-HEZITZAILEAK



ZAINTZA ETA
GIZARTE
ZERBITZU
PUBLIKOAK
INDARTU

URTARRILAK

26

GREBA

MOVILIZACIONES

Bilbao - 10:30

Pio Baroja plazatik

Donostia - 11:00

Bolulevardeko kioskotik

Gasteiz: - 11:00

Los Guardias plazatik

 **CCOO**
irakaskuntza

Gizarte eta zaintza-zerbitzuek, 2021. urte honetan, funtsezko protagonismoa hartu dute pertsona ahulenen beharrei erantzun behar dien gizartea eraikitzeko. Ardura duten administrazioak eta zerbitzu publiko horiek kudeatzen dituzten enpresak, beren ekintza arduragabeekin, atzean uzten ari dira biztanleriaren zati handi bat. Gizarte eta zaintza zerbitzu gehiago eta hobeak behar dituztenek administrazioaren gutxiespena eta etengabeko murrizketen ondorioak nola eragiten dieten ikusten dute.

Esku-hartze sozialeko, hezkuntza-aisialdiko eta animazio soziokulturaleko eta desgaitasunari edo aniztasun funtzionalari arreta emateko langileak dira, hezkuntzaren esparruan, gizarte-bazterketako prozesuak prebenitzeko eta arintzeko behar sozialei erantzuten dietenak, giza garapena sustatzen saiatzen direnak, pertsonen gizareratzea eta parte-hartze soziala sustatzen dutenak, eta askotariko egoera desberdinak eta zailak ulertzen eta horietan laguntzen saiatzen direnak.

Lan hori areagotu egiten da krisi ekonomiko, sanitario edo sozial bakoitzean, eta zaildu egiten da, behar bezala garatzeko beharrezko neurriak hartu gabe.

2020an, sektoreko langileek beren lanari eta pandemiak eta konfinamenduak larriagotutako gizarte-egoerei aurre egin diete, baliabide gutxi-ekin eta agerikotasunik gabe, informaziorik eta prestakuntzarik gabe, babes-materialik gabe, arrisku-egoeren aurrean jarduteko jarraibide argirik gabe, txandak bikoiztuz eta lanalditik kanpo zerbitzua emanaz. Bitartean, Eusko Jaurlaritzari, Foru Aldundiei edo Udaletxeei, eta haien mendeko enpresei egiten diegun balorazioa, eskasa eta inplikazio faltarena da.

Urtarrilaren 26an greba egingo dugu, zerbitzu horien ratioak ez direlako nahikoak, lan-baldintzak eskasak direlako eta negoziazio kolektiboa geldituta dagoelako edo existitzen ez delako. Izan ere, gizarte-zerbitzuetan eta zaintza-lanetan, bizitza pertsonala, lanekoa eta familiakoa kontziliazioa gehiegitan ezinezkoa da, arriskuekiko esposizioa oso handia eta ia aintzat hartzen ez delako, administrazio publikoek behar besteko finantzaketa-bermerik ez izateak lanpostuei arriskua gehitzen dielako.

Grebara goaz arrazoi askorengatik, zuzenean eman behar diren gizarte eta zaintza-zerbitzuen euskal sistema baten erantzukizunagatik eta defentsagatik, behar handiena dutenei ere erantzun duina emateko ratio nahikoekin eta lan-baldintza duinekin, eta, bereziki, greba egin ezin dutenengatik, gutxieneko zerbitzuak % 100 direlako, egun normal bat bezela, gizarte- eta zaintza-zerbitzuetan edozein egun gutxieneko zerbitzuen eguna delako.



irakaskuntza

